

INGURUMEN-EBALUAZIOAREN APLIKAZIO-EREMUA

Aurkibidea

I. Sarrera.....	1. or.
II. Planak eta programak. Ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa.....	3. or.
III. Planak eta programak. Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua.....	8. or.
IV. Proiektuak. Ohiko ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa.....	10. or.
V. Proiektuak. Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua.....	11. or.
VI. Proiektuak. Ingurugiroaren gaineko eraginaren ebaluazio sinplifikatua.....	13. or.
VII. Aurkibide tematikoa.....	14. or.

I. SARRERA

Ingurumenean ondore esanguratsuak izan ditzaketen plan, programa eta proiektuei ingurumen-ebaluazioaren prozedura bat egin behar zaie.

Planak eta programak. Ingurumen-ebaluazioaren bi prozedura mota egin dakizkieke:

- Ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa¹
- Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua

Proiektuak. Ingurumen-ebaluazioaren bi prozedura mota egin dakizkieke:

- Ohiko ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa²
- Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua

¹ Ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazio-prozedura ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduraren baliokidea da.

² Ingurumen-inpaktuaren banakako ebaluazio-prozedura ohiko ingurumen-ebaluazioaren prozeduraren baliokidea da.

Gainera, bosgarren prozedura gehigarri bat dago, txikiagoak diren proiektuetarako, ingurugiroaren gaineko eraginaren ebaluazio sinplifikatua³ deitzen dena.

Ingurumen-ebaluazioaren prozeduren aplikazio-eremua lege hauetan dago arautua:

- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa. Arau honetan jasotako aplikazio-eremua ingurumena babesteko oinarritzko legeria da⁴.
- 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesten duena⁵. Arau honetan jasotako aplikazio-eremua Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko araudi gehigarria da, oinarritzko legeriarekin lotuta⁶.

Soilik bi kasutan aurreikusten da ingurumen-organoak erabakiko duela ingurumen-ebaluazioaren prozedura bat egingo den ala ez: ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozeduraren kasuan eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren kasuan.

Bestalde, sustatzaileak hauta dezake plan, programa edo proiektu bati ohiko ingurumen-ebaluazioa bat egitea, Legeak ezartzen badu, gutxienez, prozedura sinplifikatua aplikatu behar zaiola. Plan eta programen kasuan, ebaluazioa egitea ingurumen-organoak onartu behar du berariaz; aldiz, proiektuen kasuan, nahikoa da sustatzaileak eskatzea.

³ Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legeko 43 eta 49. artikuluetan arautua; ez dago arautua abenduaren 9ko 21/2013 Legean.

⁴ 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, zortzigarren azken xedapena.

⁵ Lege honetan jasotako aplikazio-eremua urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren bidez aldatu da. Dekretu horrek planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen du.

⁶ Espainiako Konstituzioaren 149.1.23. artikulua

II. PLANAK ETA PROGRAMAK. OHIKO INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKOA

Ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura aplikatzeko eremua:

- 21/2013 Legearen 6. artikulua 1. zenbakian jasotako espezifikazioak betetzen dituzten planak eta programak.
- Aurrekoez gain, 3/1998 Legearen IA eranskinean jasotako planak eta programak. Lege hori urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren bidez aldatu zen, hau da, plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen Dekretuak.

Aipatutako arauetan ezarritakoaren arabera, ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura aplikatzeko eremua honela laburbildu daiteke:

- Prozedura egin behar zaie, beti eta kasu guztietan, lurralde- eta hirigintza-plangintzako (bai lehen formulazioa bai berrikuspena) tresna hauei:
 - Lurraldearen antolamenduaren gidalerroak
 - Lurralde-plan partzialak
 - Lurralde-plan sektorialak
 - Hiri-antolamendurako plan orokorrak
 - Sektorizatze-planak
- Gainera, administrazio publiko⁷ batek landu, hartu edo onartutako eta lege-edo araudi-xedapen batek eskatuta edo Ministro Kontseilu edo Gobernu Kontseiluaren erabakiz landu eta onartutako bestelako plan eta programei prozedura egin behar zaie, **baldin eta ingurumenean ondore esanguratsuak izan baditzakete**.
- Oro har, aurreko ataletan aipatutako plan eta programetako aldaketei ere prozedura egin behar zaie, nahiz eta aurrerago aipatzen diren salbuespen batzuk egon.

⁷ 3/1998 Legeak, IA eranskinean, «lanketa» terminoa erantsi die 21/2013 Legean aipatzen diren beste bi terminoei (hartutako edo onartutako plana).

Ikusi dugu prozedura horri lotutako planak eta programak Legeak ezartzen dituela. Halere, plan edo programa zehatz bat Legean jasotako kasuan dagoen jakiteko, batzuetan 21/2013 Legearen 6. artikuluko 1. zenbakian zehaztuta ez dauden lege-xedapenetara jo behar da.

Jarraian, plan eta programei ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura egiteko hainbat kasu azaltzen dira, kasu bakoitzean kontuan izan behar diren baldintzatzaileak zehazki aipatuz, prozedura hori aplikatu behar den ala ez zehazteko:

1. kasua⁸

«Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen duten plan eta programak, eta honako arlo hauei buruzkoak badira: nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, akuikultura, arrantza, energia, meatzaritza, industria, garraioa, hondakinen kudeaketa, ur-baliabideen kudeaketa, itsaso eta lehorren arteko jabari publikoaren okupazioa, itsas ingurunearen erabilera, telekomunikazioak, turismoa, hiri- eta landa-lurraldearen edo lurzoruen erabileraren antolamendua»

«Proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzea» esaldiaren esanahia lege zehaztu da⁹: «Plan edo programa batek legeko betebeharrak hori duten proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua zehazten duela ulertuko da honako kasu hauetan: proiektuen kokaleku, ezaugarri, dimentsio edo funtzionamenduari buruz –besteak beste– irizpideak edo baldintzak ezartzen dituztenean; edo proiektuetarako baimenak nola emango diren berariaz eta zehaztasunez ezartzen dituztenean.»

Bestalde, **ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa legez egin behar zaien proiektuak** dira proiektuen ohiko ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozeduraren alorrean daudenak¹⁰, edo, bestela, proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozeduraren alorrean daudenak¹¹, alor horiek aurrerago aztertuko dira.

Ondorio horietarako, ez da kontuan izan behar ingurugiroaren gaineko eraginaren ebaluazio sinplifikatuaren alorra¹²; izan ere, azken prozedura hau ez dago 21/2013 Legeak ezarritakoen artean, eta ez da prozedura horien baliokidea.

⁸ 21/2013 Legearen 6.1.a artikulua

⁹ 3/1998 Legearen IA eranskina.

¹⁰ 21/2013 Legean arautua eta, era berean, 3/1998 Legean araututako ingurumen-inpaktuaren banakako ebaluazioaren prozeduraren alorrean dauden proiektuak.

¹¹ 21/2013 Legean arautua; ez dago arautua 3/1998 Legean.

¹² 3/1998 Legearen 43 eta 49. artikuluetan arautua; ez dago arautua abenduaren 9ko 21/2013 Legean.

2. kasua¹³

«Ebaluazio bat behar duten plan eta programak Natura 2000 Sareko guneetan eragina dutelako, abenduaren 13ko 42/2007 Legean, ondare naturalari eta biodibertsitateari buruzkoan, xedatutakoaren arabera.»

42/2007 Legeak plan, programa edo proiektu baten «*ebaluazio egokia*»¹⁴ izenekoa arautzen du. Plan, programa edo proiektu horrek, lekuaren kudeaketarekin erlaziorik izan gabe edo horretarako beharrezkoa izan gabe, toki horiei¹⁵ dezente eragin diezaieke, bai indibidualki edo beste plan edo proiektu batzuekin konbinatuta. Hauek dira 21/2013 Legeak aipatzen dituen terminoak eta ingurumen-ebaluazioaren prozedura aplikatzeko eremuaren definizioa osatzen dute termino horiek.

3. kasua¹⁶

«Ondare naturalari eta biodibertsitateari buruzko oinarritzko legeria edo Euskal Autonomia Erkidegoko natura zaintzeko legeria aplikatuz emandako arau-xedapen orokorrek edo nazioarteko hitzarmenek eragindako ingurumen-babeserako erregimenen bat duten eremuetan eragiten duten» plan eta programak.

42/2007 Legeak (ondare natural eta biodibertsitateari buruzko legeria) naturagune babestuen araubidea arautzen du, gutxienez, kategoria hauetako batean sailkatuak:

- Parkeak
- Erreserba naturalak
- Babestutako itsas eremuak
- Monumentu naturalak
- Paisaia babestuak

Horiei Natura 2000 Sarearen babesa erantsi behar zaie, 2. kasuan landua, baita guneak babesteko bestelako figurak ere, horien artean hauek jasotzen dira:

- Ramsar hitzarmeneko nazioarteko garrantziko hezeguneak¹⁷
- Munduko ondarearen zerrendako gune naturalak¹⁸
- OSPAR itsas eremuak¹⁹
- UNESCOk deklaraturako geoparkeak

¹³ 21/2013 Legearen 6.1.b artikulua

¹⁴ Legearen 45.4. artikulua.

¹⁵ Natura 2000 Sareko lekuei buruz ari da

¹⁶ 3/1998 Legearen I. eranskinaren A.8.c atala, ingurumenean eragin esanguratsuak eragiten diren egoera edo ezaugarrien c) kasuarekin erlazionatua, eranskinean bertan jaso

¹⁷ Nazioarteko garrantziko hezeguneei buruzko hitzarmena, bereziki uretako hegaztien habitat gisa

¹⁸ Munduko ondarea, ondare kulturala eta naturala babesteari buruzko konbentzioa

¹⁹ Ipar-ekialdeko Atlantikoko itsas ingurumena babesteko konbentzioko gune babestuak (OSPAR)

- UNESCOk deklaraturako biosfera erreserbak
- Europako Kontseiluaren erreserba biogenetikoak

Bestalde, Euskadiko natura kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuak orain arte aipaturako guneak babesteko figurei, hauek biak erantsi dizkie:

- Biotopo babestua
- Aparteko zuhaitza

Kasu hauetan, ulertzen da ingurumen-ebaluazioaren prozedura tokiaren kudeaketarekin erlaziorik ez duten edo ebaluazio horretarako behar ez diren plan eta programei ingurumen-ebaluazioaren prozedura aplikatu behar zaiela Natura 2000 Sareko tokietarako, bai 21/2013 Legean bai 42/2007 Legean ezarritako printzipioa era zabalean aplikatuta.

4²⁰ eta 5.²¹ kasuak

«2. paragrafoan jasota dauden planak eta programak, ingurumen-organoak ingurumen-txosten estrategikoan hala erabakiz gero, kasuz kasu, V. eranskinetako irizpideei jarraituz.»

«2. paragrafoan jasota dauden plan eta programak, ingurumen-organoak hala erabakiz gero, sustatzaileak eskatuta»

Bi kasu hauetan, bien arteko aldeak sotalak dira, Legeak ingurumen-organoari ematen dio plan edo programa bati ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar zaion zehazteko eskumena. Ingurumen-organoari dagokio bidezkoa den erabakia hartzea soilik ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren alorrean dauden kasuetan²² eta, sustatzaileak eskaera egiten duenean izan ezik, prozedura hori laburbildu ostean eta, gainera, 21/2013 Legearen V. eranskinean ezarritako irizpideak kontuan hartu behar ditu.

²⁰ 21/2013 Legearen 6.1.c artikulua

²¹ 21/2013 Legearen 6.1.d artikulua

²² Hau da, 21/2013 Legearen 6. artikuluko 2. zenbakiko kasuak

6. kasua. Ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren ebaluazio-eremuko planak eta programak aldatzea.

21/2013 Legeak ezartzen du ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura planei eta programei, **baita beren aldaketei** aplikatzeko eremua, aurreko paragrafoetan azaldu diren terminoetan²³.

Baina Legeak, halaber, ezartzen du plan eta programa horien aldaketa txikiei²⁴ ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egingo zaiela²⁵, eta ingurumen-organoari dagokiola erabakitzea ohiko prozedura egin behar zaien ala ez, prozedura sinplifikatua laburbildu ondoren.

Halere, ikusi dugu 3/1998 Legeak, ingurumena babesteko arau gehigarri bat denez, ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa aplikatzeko eremua handitzen duela. Arau honen arabera, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren alorrean dauden planen aldaketei prozedura berdina²⁶ egin behar zaie ingurumenean eragin esanguratsua izan badezakete, hau da, egoera hauetako baten bat dagoenean²⁷:

- Ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzea legezko betebeharra duten proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua zehazten dutenean
- Natura 2000 Sareko guneei eragin diezaiekeenean, tokiaren kudeaketarekin erlaziorik izan gabe²⁸.
- Ondare naturalari eta biodibertsitateari buruzko oinarrizko legeria edo Euskal Autonomia Erkidegoko natura zaintzeko legeria aplikatuz emandako arau-xedapen orokorrek edo nazioarteko hitzarmenek eragindako ingurumen-babeserako erregimenen bat duten eremuetan eragiten dutenean, tokiaren kudeaketarekin erlaziorik izan gabe²⁹.

²³ 21/2013 Legearen 6.1. artikulua, lehenengo paragrafoa

²⁴ Aldaketa txikiak: abian jarritako edo onartutako plan edo programen ezaugarriak aldatzea, betiere haien estrategia, zuzentarau eta proposamen edo kronologian funtsezko aldaketarik eragin gabe, baina aurreikusitako eraginen edo eragin-eremuaren ezaugarrietan desberdintasunak eraginez (21/2013 Legearen 5.2.f artikulua)

²⁵ 21/2013 Legearen 6.2.a artikulua

²⁶ Ohiko ingurumen-ebaluazio estrategiko gisa ulertu behar da, zeren 3/1998 Legeak ez du arautzen ebaluazio-prozedura sinplifikatua.

²⁷ 3/1998 Legearen I. eranskineko A.7 atala, ingurumenean eragin esanguratsuak eragiten diren egoera edo ezaugarrien a) b) eta c) kasuekin erlazionatua, eranskinean bertan jasoak

²⁸ Ikusi 2. kasua, aurreko paragrafoetan aipatua

²⁹ Ikusi 3. kasua, aurreko paragrafoetan aipatua

III. PLANAK ETA PROGRAMAK. INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKO SINPLIFIKATUA

Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura aplikatzeko eremua 21/2013 Legearen 6. artikulua 2. atalean dago ezarrita. Kontuan izanda aurreko paragrafoetan aipatutakoa honela laburbildu daiteke:

- 21/2013 Legearen 6. artikulua 1. zenbakian jasotako plan eta programen aldaketa txikiak³⁰, 3/1998 Legearen IA eranskinean espezifikatutako egoeretako batean ez daudenean.
- 21/2013 Legearen 6. artikulua 1. atalean jasotako plan eta programak, baldin eta hedapen murriztuko guneen, udalerri-mailan, erabilera ezartzen badute eta ez badaude 3/1998 Legearen IA eranskineko kasu espezifikoetako batean.
- 21/2013 Legearen 6. artikulua 1. zenbakian, ezta 3/1998 Legearen IA eranskinean ere, jasota ez dauden beste plan eta programa batzuk, proiektuak etorkizunean baimentzeko esparru bat ezartzen dutenean³¹.

Aurreko kasuan bezala, ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egin behar zaien plan eta programek baldintza formal hauek bete behar dituzte:

- Administrazio publiko batek landu, hartu edo onartu behar ditu³²
- Lege- edo arau-xedapen batek edo Ministro Kontseiluak edo Gobernu Kontseiluak eskatuta landu eta onartu behar da.

Batzuetan planteatu da zaila dela aurrez ezartzea plan edo programa baten esparru diren proiektuei ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaien ala ez.

Normalean gertatzen da planek erabilerak edo jarduerak ezartzea onartzen dutela, erabilera edo jardura horiek gauzatuko diren proiektuen zenbait zehaztasun, edo hedapena, zehaztu gabe. Lurzoru eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean araututako egiturazko antolamendu-planak direnean, adibidez, ez dira zalantza handiak izaten; izan ere, ikusi dugun bezala, plan horiei ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egingo zaie beti eta kasu guztietan.

³⁰ Aldaketa txikiak: abian jarritako edo onartutako plan edo programen ezaugarriak aldatzea, betiere haien estrategia, zuzentarau eta proposamen edo kronologian funtsezko aldaketarik eragin gabe, baina aurreikusitako eraginen edo eragin-eremuaren ezaugarrietan desberdintasunak eraginez (21/2013 Legearen 5.2.f artikulua)

³¹ Derrigorrezkoa da ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiten ez zaien proiektuak ez izatea, zeren, horrela izango balitz, proiektu horien plan edo programari ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar zaio.

³² 3/1998 Legeak, IA eranskinean, «lanketa» terminoa erantsi die 21/2013 Legean aipatzen diren beste bi terminoei (hartutako edo onartutako plana).

Halere, zalantza sortzen da antolamendu xehatua gauzatu behar denean; izan ere, zehaztasun nahikorik gabe, zaila da aurrez zehaztea plana (plan partziala edo plan berezia) etorkizunean baimen-esparrutzat izango duten proiektuei ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaien ala ez.

Kasu horietan, bi erabaki hauetako bat hartzea gomendatzen da:

- a) Planaren irismena mugatzea; horrela, bere esparruan etorkizunean baimentzen diren proiektuak ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko atalasearen azpitik egongo dira. Planari ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egin beharko zaio, baina etorkizunean baimentzen diren proiektuek ezingo dituzte atalaseak gainditu edo ezingo dituzte ezaugarri zehatz batzuk izan. Bestela esanda, planaren esparruan etorkizunean ezingo dira baimendu ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egingo zaien proiektuak.
- b) Ohiko planari ingurumen-ebaluazio estrategikoa egitea, plangintza etorkizunean oztopo bat ez dadin izan proiektuak atalase zehatz batzuk lortzeko edo ezaugarri zehatz batzuk izateko. Bestela esanda, planaren zehaztapenek ez dute eragotziko etorkizunean ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaien proiektuak baimentzea.

IV. PROIEKTUAK. OHIKO INGURUMEN-INPAKTUAREN EBALUAZIOA

Ohiko ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura aplikatzeko eremua:

- 21/2013 Legearen 7. artikulua 1. zenbakian jasotako espezifikazioak betetzen dituzten programak.
- Aurrekoez gain, 3/1998 Legearen IB eranskinean jasotako proiektuak. Lege hori 21/2012 Dekretuaren bidez aldatu zen.
- Gainera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren araubidearen mendeko jardura, obra edo instalazio publiko edo pribatuak, baliabide naturalak antolatze planak³³ aplikatuta dagozkien antolamendu-eremuetan.

21/2013 Legearen I. eranskinak eta 3/1998 Legearen IB eranskinak ohiko ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura³⁴ egiten zaien proiektu moten zerrendak dituzte.

Proiektu mota horietako bakoitza eranskinetan jasotzen da, jardura, azpiegitura, instalazioaren edo, orokorrean, dena delako ekintzaren ezaugarri nagusien azaleko deskribapen baten erara, deskribapen horretan normalean (baina ez beti) dimentsio fisiko (esaterako, azalera, luzera edo edukiera), ekoizpen-gaitasun, potentzia termiko edo bestelakoen atalaseak ere izaten dira, era kuantitatiboan adierazita. Batzuetan, atalaseak berariaz adieraz daitezke era kualitatiboan.

Proiektu motek gutxi gorabehera egiten dute bat aurrez aipatutako bi eranskinetan, baina batzuetan, bi eranskinetako batek besteak baino atalase zorrotzagoak ditu, hau da, arau batek eskatzen du dena delako proiekturi ohiko ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitea, nahiz eta bere dimentsioak beste arauan jasotzen den atalasea baino txikiagoak izan. Kasu horietan, atalaserik zorrotzena aplikatu behar da, kontuan izan gabe atalase hori Estatuaren oinarritzko legedian edo autonomia-erkidegoko legerian jasota dagoen, eta hori aplikatu behar da zeren proiektu bati ohiko ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura egitea ingurumena babesteko neurritzat jotzen da³⁵.

Ohiko ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaie, zatikatuta aurkeztuta, aintzat hartutako proiektu bakoitzaren magnitudeak edo dimentsioak metatuz, lehenago aipatutako atalaseetara iristen diren proiektuei³⁶.

³³ Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 4.2.f artikulua.

³⁴ Ingurumen-inpaktuaren banakako ebaluazio-prozedura ohiko ingurumen-ebaluazioaren prozeduraren baliokidea da.

³⁵ Otsailaren 27ko 3/1998 Legean jasotako aplikazio-eremua Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko araudi gehigarria da, oinarritzko legeriarekin lotuta (Espainiako Konstituzioaren 149.1.23. artikulua).

³⁶ Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7.1. artikulua.

Proiektuen aldaketei ohiko ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaie beren kabuz aipatutako eranskinetan ezarritako atalaseak gainditzen badituzte.

Halaber, ohiko ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egingo zaie ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egin zaien proiektuei, prozedura horren ebazpenean ingurumen-organoak hori erabakitzen badu.

Halaber, ohiko prozedura egin behar zaie ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren eremuko proiektuei, sustatzaileak hala eskatzen badu.

V. PROIEKTUAK. INGURUMEN-INPAKTUAREN EBALUAZIO SINPLIFIKATUA

21/2013 Legearen 7. artikuluko 2. zenbakian jasotako espezifikazioak betetzen dituzten proiektuak ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozedura aplikatzeko eremuan daude.

Ez da aplikatuko ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozedura, aurreko atalean adierazitako edozein baldintza dela eta, ohiko ebaluazioa egin behar denean.

21/2013 Legearen III. eranskinean ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozedura egiten zaien proiektu moten zerrenda dago.

Proiektu mota horietako bakoitza eranskinean jasotzen da, jarduera, azpiegitura, instalazioaren edo, orokorrean, dena delako ekintzaren ezaugarri nagusien azaleko deskribapen baten erara, deskribapen horretan normalean (baina ez beti) dimentsio fisiko (esaterako, azalera, luzera edo edukiera), ekoizpen-gaitasun, potentzia termiko edo bestelakoen atalaseak ere izaten dira, era kuantitatiboan adierazita. Batzuetan, atalaseak berariaz adieraz daitezke era kualitatiboan.

Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egin behar zaie, zatikatuta aurkeztuta, aintzat hartutako proiektu bakoitzaren magnitudeak edo dimentsioak metatuz, lehenago aipatutako atalaseetara iristen diren proiektuei³⁷.

³⁷ Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7.2.d artikulua.

Gainera, baliabide naturalak antolatzeko planek ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren³⁸ araubidearen mende dauden jarduera, obra edo instalazio publiko edo pribatuaren zehaztapena izan dezakete dagozkien antolamendueremuetan.

Bestalde, prozedura sinplifikatua, halaber, Natura 2000 Sareko gune babestuei, zuzenean edo zeharka, dezente eragin diezaiekeen edozein proiektuari aplikatzen zaio. Kasu horietan, ulertu behar da, plan eta programetan gertatzen den bezalatsu, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozedura ez zaiela aplikatuko tokia kudeatzearekin zerikusia duten proiektuei³⁹, salbu eta, jakina, proiektuari bestelako arrazoiengatik prozedura hori egiten bazaio.

21/2013 Legearen eranskineko proiektuei, metodo edo produktu berriak garatzeko edo probatzeko bakarrik edo nagusiki horretarako balio badute, eta proiektuaren iraupena bi urtetik gorakoa ez bada, prozedura sinplifikatua egingo zaie ohiko prozeduraren orde.

Lehendik dauden proiektuen aldaketei ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egin behar zaie beren kabuz gaingiditzen badituzte aipatutako II. eranskinean ezarritako atalaseak.

Ingurumenean ondore esanguratsuak izan ditzaketen aurretiazko proiektuen bestelako aldaketei prozedura sinplifikatua egin behar zaie. Kasu honetan, ulertzen da aldaketa batek ondore esanguratsuak izan ditzakeela ingurumenean ondore hauetakoren bat ekartzen badu⁴⁰:

1. Atmosferara egiten diren isurketen gehikuntza adierazgarria.
2. Ubide publikoetan edo itsasertzean botatako isurketen gehikuntza adierazgarria.
3. Sortutako hondakinen gehikuntza adierazgarria.
4. Baliabide naturalen erabileraren gehikuntza adierazgarria.
5. Natura 2000 Sareko gune babestuetan ondorioren bat eragitea.
6. Ondare kulturean ondorio adierazgarriren bat eragitea.

Lehenengo 4 irizpideei dagokienez, gehikuntza era kuantitatiboan kalkulatu behar da, hasierako egoerarekin bat eginez beti, behar bezala baimenduta.

Adibidez, instalazio industrial bat baimenduta badago atmosferara kutsatzaile jakin batzuk isurtzeko, esaterako nitrogeno oxidoa izan daiteke, edo partikulak, kutsatzaile bakoitzaren kopuru hori (urteko masa-unitate terminoetan) zein den ezagutu beharko da. Normalean, airearen fluxuan eta isuritako emarian kutsatzailearentzat baimentzen den gehieneko kontzentrazioetik kalkulatu ahal izango da. Jarraian, kutsatzaile horrentzat, proposatutako aldaketatik eratorrita, aurreikusitako isurketa zein den zenbatetsi beharko da. Zenbatetsitako kopuru berria kutsatzaile horren isurketaren gehikuntza absolutua izango da; aldez, kopuru

³⁸ Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 4.2.f artikulua.

³⁹ Abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 45.4. artikulua.

⁴⁰ Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7.2.c artikulua.

hori bi kopuruen, baimendua eta berria, baturarekin zatituta lortuko da gehikuntza erlatiboa.

Jakina, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura egin behar den zehazteko, soilik gehikuntza positiboak hartu behar dira kontuan.

Atmosferara egiten diren isurketei dagokienez, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuen araudiak⁴¹ irizpide zehatzak ezartzen ditu deskribatutako eran kalkulaturako kopuruak esanguratsutat noiz jo daitezkeen zehazteko. Gainerako kasuetan, arauak ez dute ezarri irizpide hain zehatzik.

VI. PROIEKTUAK. INGURUGIROAREN GAINEKO ERAGINAREN EBALUAZIO SINPLIFIKATUA

Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen IC eranskinean jasotako espezifikazioak betetzen dituzten proiektuak ingurugiroaren gaineko eraginaren ebaluazio sinplifikatuaren prozedura aplikatzeko alorrean daude.

Ingurugiroaren gaineko eraginaren ebaluazio sinplifikatuaren prozedura ez da aplikatuko, aurreko ataletan adierazitako edozein baldintza dela eta, ohiko ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa edo ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egin behar bada.

Nahiz eta izen bera izan, ingurugiroaren gaineko eraginaren ebaluazio sinplifikatua, bi prozedura dira. Bi prozedurak lege desberdinek arautzen dituzte eta tramite oso desberdinak ezartzen dira bietarako.

⁴¹ 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 16koa, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuen Lege bateginaren testua onartzen duena eta 815/2013 Errege Dekretua, urriaren 18koa, isurketa industrialen erregelamendua onartzen duena eta uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duena.

VII. AURKIBIDE TEMATIKOA

- Aldaketak
 - plan eta programenak, ohiko IIE (3, 7. or.)
 - plan eta programen aldaketa txikiak, IIE sinplifikatua (8. or.)
 - proiektuenak, ohiko IIE (10. or.)
 - proiektuenak, IIE sinplifikatua (11. or.)
 - proiektuenak, gehikuntzen kalkulua (12. or.)
- Araudia:
 - Erkidegoko ingurumen-ebaluazioa (2, 3, 7, 8, 10, 13. or.)
 - Ingurumen-ebaluazioa. Estatuko oinarrizko legeria (2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 10, 11, 12. or.)
 - Lurzorua eta hirigintza (9.or.)
 - Naturaren kontserbazioa. Estatukoa (5, 6. or.)
 - Naturaren kontserbazioa. Erkidegokoa (6. or.)
- Gune babestuak (5, 6, 7, 12. or.)
- Ingurugiroaren gaineko eraginaren ebaluazio sinplifikatua (13. or.)
- Ingurumen-ebaluazioa
 - prozedurak (1. or.)
 - planen ohikoa (3. or.)
 - planen sinplifikatua (8. or.)
 - proiektuen ohikoa (10. or.)
 - proiektuen sinplifikatua (11. or.)
- Ingurumen-organoa, ingurumen-ebaluazioa aplikatzeari buruzko erabakia (2, 6, 7, 11. or.)
- Natura 2000 sarea (5, 6, 7, 12. or.)
- Ondore esanguratsuak ingurumenean (1, 3, 7, 12. or.)
- Plan eta programak
 - antolamendu xehatuzkoak (9. or.)
 - egiturazko antolamenduzkoak (3, 9. or.)
 - hedapen murriztukoak (8. or.)
 - lurralde-antolamenduko tresnak (3. or.)
 - proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua (4, 7, 8. or.)
- Sustatzailea, ohiko prozedura bat hautatzea (2, 6, 11. or.)